

# Apartheid izeneko tranbia



**RUBEN SANCHEZ**  
BAKAIKOA  
IRAKASLEA

**A**ndrés Arizkorreta CAFeko presidente exekutiboak irailaren 29an *El Diario Vasco*-ri emandako elkarrizketa batean zioen nazioarteko legediari begiraturik Jerusalemgo tranbiak ez duela eragozpenik. Beharbada, tranbiaren bagoiak berak ez dira ilegalak, ez dakit tranbiak ibili beharreko trenbidea bera ere ilegalak den, hitz-jokoak dira azken batean, izan ere, badaezpada, Andrés: tranbia horrek Jerusalemekin lotu behar dituen koloniak bai dira ilegalak. Ooooso ilegalak nazioarteko legediaren arabera.

Horregatik langile batzordeak eskatu du CAFek ez dezala fabrikatu tranbia hori. Ez da borroka erraza izango, eta langile horiek dira aldi berean borroka horren indar nagusia, baita kapitalaren erasoaren jomuga ere. Gure dilista platera ukitzen ez dutenean erraza da solidarioa izatea, baina hemen horrexekin mehatxu egiten du Andrés Arizkorretaren talde exekutiboak. Tira, mehatxu ez, informatu egiten du.

CAF maiz agertu da *El Diario Vasco* zein EITBren publi-erreportajeetan, milaka pertsoneri lana eman eta bizimodua aurrera ateratzen laguntzen dien euskal enpresa handi gisan, esan gabe doa, "puntako", "mundu mailako" eta kalitatezko Q handi batekin. Pentsa, 500 milioi euro daude jokoan Jerusalem, lan-

gileok, denontzako lana, aberastasuna, etorkizuna. Eta fabrikatu ezean, berriz, badakizue, beharbada lanpostu batzuk kolokan, eta pertsona batzuek aza jaten bukatuko dute hurrengo urtezahar gaua. Egoeraren berri ematen ari gatzazkizue, besterik ez.

Hala egongo ote dira Jerusalemgo tranbia fabrikatzeari uko egin dioten Veolia eta Alstom enpresetako langileak, Andrés? Izan ere, Andrés, kasu honetan, behintzat, 500 milioi euroko kontratua lortzeko bi lehiakide handi apartatu izana lagungarri izan da, ezta?

Enpresa batean garrantzitsuak dira inbertsioa, ikerkuntza, lantaldeak, teknologia, lehiakortasuna, konpromisoa, ekologismoa eta kalitatezko Q handi bat izatea. Baina, letrarik ederrena, CAFeko langileek merezi dute: elkartasunaren E handi bat. Lagundu ditzagun borroka honetan, sentitu dezatela CAFeko gausiek langileez gain, herritar gehienon gaitzespena.

Ekialdeko Jerusalemgo eta Zisjordaniako okupazioa ilegalak da; kolono sionistek lurra, ura eta bideak lapurtzen dituzte ilegalki, harresi erraldoi bat ere eraiki dute koloniak babesteko. Eta orain tranbia hau nahi dute palestinar lurraldea areago zatikatu eta bizi-ezin bilakatzeko. Ez diezaiegun eusko labelik eman. ●

# Jostailuzko sukaldeak denontzat



**ITZIAR BARDAJI**  
GOIKOETXEA  
IRAKASLEA

**T**xikitan Olentzerok inoiz ez zidan ekarri nini txiki baten itxura duen panpinik, *nenuco* edo horrelakorik. Amak esaten zuen neskek ez dugula ikasi behar gure bizitzaren patua ama izan eta umeak zaintzea denik. Ni bezala, asko, gu ez gara gizonezkoak baino gutxiago. Haiek bezainbat egin dezakegula frogatzen saiatu gara, baita gizonezkoen espazioak konkistatzeari ekin ere: lidergoa, bozeramailletza, indarra, irmotasuna, arrazionaltasuna, botereari...

Oker gaude baina. Ezin dugu haien espazioa menderatu, geureganatu. Bertan sartzen den emakume edo bestelako ez-gi-

zona (ez txuria, ez heteroa, ez cisa, ez-gaitua...) gizon bihurtu beharko da, gizarteak gizontasuna gaizki ulertzen duenaren arabera, eta emetasunarekin lotzen dena ukatu eta ezkutatu: zaurgarritasuna, ahultasuna, emozioa, zaintza, entzutea, enpatia, umiltasuna. Gazte asanbladan, lantokian, eko-herri okupatu batean edota Bilderberg klubean, gizondu ala botere modu hori ez elikatzearen, alde egin dezagun.

Esan nahi dut, horrekin guztiarekin, Olentzerok neskei baloia ekartzea baino garrantzitsuagoa dela haur guztiei jostailuzko niniak, erratzak eta sukaldeak oparitzea. ●